

106. ALDIZKARIA - 2007ko abuztuaren 27a

Barañaingo Udalak, 2007ko apirilaren 26an egin osoko bilkura arruntean, hasiera batean onestea erabaki zuen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Barañaingo Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamenduaren gaineko erregelamendua.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.b) artikuluko aginduei jarraikiz, erabaki hori 2007ko 67. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, maiatzaren 30ean, baita Barañaingo Udalaren iragarki oholean ere, eta espedientea jendaurrean eduki hogeita hamar egunez

Aipatu jendaurreko epea iraganik, eta hasiera batez onetsitako erregelamenduaren testuari alegazioak auzeratu zirenez, Barañaingo Udalak, 2007ko uztailaren 26an egin osoko bilkura arruntean alegazio horiek onetsi zituen; hori dela eta hasiera batez onetsitako erregelamenduaren testuari aipatu alegazioak onestearen ondorio diren aldaketak erantsi zitzaizkion.

Argitara ematen da aipatu agindua betez, eta ohartarazten Erregelamendu honen aurka _xedapen administratiboa baita_ ezin dela administrazio bidean errekurtsorik aurkeztu (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107.3 artikuluari jarraikiz); hortaz, behin betiko onespene honen aurka ondoko bideren bat erabiltzen ahalko da:

a) Bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari zuzenean aurkeztuta, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aitzina, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.b) artikuluari jarraikiz.

b) Hilabeteko epean, gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztuta, erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO BARAÑAINGO KONTSEILUAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN GAINKO ERREGELAMENDUA

Aurkibidea

- Zioen azalpena.
- artikulua. Legezko oinarriak.
- artikulua. Xedea.
- artikulua. Osaera.
- artikulua. Eginkizunak.
- artikulua. Funtzionamendua.
- Xedapen indargabetzailea.
- Azken xedapena._Indarra hartzea.

ZIOEN AZALPENA

Emakumearen partehartzea gizartean handitu egin da azken urteotan. Ikusten dugu bai eremu pribatuan: lantegiko lanean,..., bai gure herriko jarduera ekonomikoan, politikoa eta sozialean ere.

Emakumeek berek zehaztu behar dute gizartean lortu nahi duten berdintasun maila.

Emakumeen ongizatea gizartean komunitate osoarentzako ondasun bat da, eta horregatik beharrezkoa da emakume guztiek, talde oso bateko partaide bezala, parte hartu eta jardutea hura lortzeko ahaleginetan. Izanez ere, uste dugu beraien partehartze komunitarioarekin hobetu egin daitekeela ongizate hori.

Denontzako helburu bat lortzeko, funtsezkoa da emakume guztiek parte hartzea ongi informaturik, ongi motibaturik eta aktiboki.

Parte hartze horrek bi helburu ditu:

- Lan, famili eta ekonomi aldetik emakumeen eremu sozialean eragina duten elementuak aldatzea.
- Emakumeen beharrei erantzuteko behar diren baliabideak / zerbitzuak proposatzea, beraien eskaera sozialetan lagundu ahal izateko.

Emakumeek beraien bizitzako eremu guztietan aurrera egiteko, beharrezkoa da haiek berek benetan eta zuzenki parte hartzea: beraien lehentasunak finkatzen, erabakiak hartzen, gizartean maila hobea lortzeko estrategiak prestatu eta abiarazten.

Emakumeen ongizate soziala lortzea emakumeen elkarten egitekoa baino are gehiago da, udalaren eskumenak ere gainditzen baititu.

Emakumeek ongizate maila ahalik eta altuena lortzeko izan daitezkeen guneetako bat dugu udala.

Emakumeek parte hartzen dute udal jardueretan beren beharren eta komunitatearen premien arabera, eta era horretan jakinaren gainean daudela eta ekimen iraunkorrean hartzen dute esku komunitatearen garapenean.

Dokumentu honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektoriala sortzeko proposamena luzatzen du, gune hori Barañaingo Udaleko partaidetza-organo izan dadin, Barañaingo emakumeen ongizateari eutsi eta gorantzako bultzada emateko xedearekin, gaur egun lortu duen mailak hala eskatzen baitu.

Ongizate horretarako zerikusia izanen du udalaren erantzunak aurkezten zaizkion beharren aurrean, eta udalaren politikak eta, zehatzago esanda, emakumeari buruz egiten duen politikak zehaztuko dute.

1.- artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarako kontseiluaren legezko oinarriak.

Emakumeen parte hartzea udalaren eremuan gizartearen demokratizazioaren ondorioa da, alde batetik, eta beste aldetik udalaren jarduera demokratikoaren ekarpena.

– Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa. Aipatu Lege horrek bere II. tituluko II. kapituluan, ahalmen eta eskumenen mugaketa, 44.18 artikulua, ezartzen du Nafarroak besteren artean eskumen hauek dituela:

Komunitatearen garapena; emakumearen aurrerabideak; haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika.

– 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

Legearen lehenbiziko tituluan, 1. artikulua, xedatzen da udalak direla estatuaren lurralde antolamendurako oinarrizko entitateak eta herritarren ekinbide hurbilenak arazo publikoetarako, eta bertan instituzionalizatzen eta kudeatzen direla, autonomiarekin, giza-taldearen interesak. Kasu honetan emakumeak izanen genituzke giza-talde horietako bat.

4. artikuluko A) puntuan udalari erregelamenduak egiteko eta autoantolatze ahalmena ematen zaio.

IV. kapituluan, herritarrentzako informazioa eta haien parte hartzea, 69. artikuluan, honako hau xedatzen da: "Toki korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emanen dute beren jarduerari buruz, eta herritarrek herriko gorabeheretan parte hartzeko bidea erakutsiko. Autoantolatze ahalmenaren ondorioz sortutako partaidetza-era, baliabide eta prozedurek ez dute inola ere murriztuko legez araututako ordezkari-organoei dagozkien erabaki-ahalmenak".

28. artikuluan honako hau dio: "Udalek egin ditzakete bestelako administrazio publikoen egitekoak diren jardueren osagarriak, eta bereziki..., emakumearen sustapena...".

– Toki Korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2658/1986 Errege Dekretua.

IV. tituluan, Lurraldeko toki erakundearen antolaketa osagarria, lehenbiziko kapitulua, 6. sekzioa, organo osagarriak, kontseilu sektorialak, 130. puntua, bada han aipatzen da kontseilu sektorialak ezarri behar direla, herritarren eta herritarren elkartearen partaidetza bideratzeko udal aferetan. Haien eginkizuna soil-soilik informatze lanak egitea da eta, hala behar bada, proposamenak aurkeztea, beti ere udal ekimenei buruz eta kontseiluari dagokion jardueraren sektorean. Gure kasu honetan emakumeen ongizate sozialaren aldeko jarduerak lirarteke.

Kontseilu sektorialen osaketa, antolaketa eta jardun-eremua kasuan kasuko osoko bilkuretan ezarriko dira.

Esparru honetan proposa liteke emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektorial baten sorrera, udalaren esparrutik, udal politikaren jardunetik sortua, emakumeen interesen alde eta emakumearen gaiekin lotutako elkartearen eta kontseiluko ordezkari politikoen partaidetzarekin, izan ere, udalek bai baitaude juridikoki ahalmena gisa horretako kontseiluak sortzeko.

2.- artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseiluaren xedea.

Kontseilu honen helburu nagusia Barañaingo emakumeak eremu honetako udal ekimenekin txosten eta proposamen eginkizunen garapenaren bidez beren garapenean parte-hartzea da.

Honen inguruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektoriala kontsulta organoa da, emakumeen ordezkari antolatzen, eztabaida eta komunikazioa sustatzeko eta partaidetzarako esparru bat sortzeko, Emakumeari Laguntza emateko arloan Gizarte Ongizateko Batzordearen esku utzitako zereginetan.

3.- artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektorialaren kideak.

1. Barañaingo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektorialak hurrengo hauek izanen ditu kide:

- a) Kontseiluko burutza, Alkatetzak proposaturik Osoko Bilkurak izendatutako Udalbatzaren kidea.
- b) Kontseilu-kideak
 - a. Barañaingo Udalaren udal talde bakoitzaren ordezkari bana.
 - b. Legez eraturako eta Barañaingo Udalaren elkartearen erregistroan inskribatutako emakumeen elkarte bakoitzaren ordezkari bana.
 - c. Berdintasunaren defentsan jardueretik inplikazioa kreditatu eta legez eraturako eta Barañaingo Udalaren elkartearen erregistroan inskribatutako udalerriko elkartearen ordezkari bana.
 - d. Berdintasunerako teknikaria.
 - e. Emakumearen alorra lantzen duten administrazio publikoetako ordezkari bat,
- c) Kontseiluko idazkaria, hizpidea duena baina botorik ez: Barañaingo udalaren emakumearen alorrari atxikitako gizarte langilea .

Aurreko b) idazatian aipatzen diren emakumeen elkarteek honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatu beharko dute:

- Beren helburuen artean sartzen dela emakumeen eskubide eta aukera berdintasunaren aldeko defentsan jardutea, hizkera ez-sexista erabilia
- Irabazi asmorik ez dutela.
- Barne egitura eta funtzionamendu araubide demokratikoak dituztela.
- Barañainen aritzen direla.

Administrazio publikoetako ordezkariak, ordezkari politikoak eta elkarte guztiek kontseiluburuari jakinaraziko dizkiote kontseilu-kide izateko bereizi dituzten ordezkarien izenak, baita beren ordezkoak ere:

Osoko bilkuran onespenez erabakia hartu eta hilabeteko epearen barrenean eraturako da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektoriala eta kideen izendapenak legealdi osorako izanen du indarra

2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektorialeko kide izateko elkarte, talde politiko eta Administrazio Publikoen ordezkariak hurrengo hau bete beharko dute:

- Kontseiluburuari idatziz jakinaraztea.

- Barañaingo Udaleko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez erabakiko da Gizarte entitate berriek kontseiluko kide izatea, Erregelamendua aldatuta.

4.- artikulua. Eginkizunak.

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektorialaren eginkizunak:

- Barañaingo emakumeen egoera ezagutzea.
- Emakumearen alorra atxikitzen den Batzordearen irizpide eta jarduera planak ezagutu eta horren berri ematea, bere helburuak lortzeko beharrezkoak jotzen diren neurriak proposatuz eta zehazki alorraren planak eta aurrekontuak onartu baino lehen entzunak izatea.
- Emakumearen alorraren funtzionamendu eta kudeaketa urteko memoria ezagutu eta horren berri ematea eta etorkizuneko jarduera eta berauen finantziarioari buruzko egoki ikusten diren proposamenak egitea.
- Batzordeari proposatzea behar diren neurriak har daitezten bi sexuen arteko berdintasuna sustatzeari eta emakumeak jarduera politiko, kultural, ekonomiko eta sozialean parte hartzeari dagokionez.
- Kontseiluari iristen zaizkion bereizkeriazko egitateak izan direlako salaketak bildu eta bideratzea, baldin eta behar bezala oinarriturik badaude eta berdintasunezko printzipioa hautsi edota emakumeak gutxiesten badituzte.
- Antzeko helburuak dituzten bestelako administrazioetako entitate eta organoekiko komunikazioa, harremana eta elkartrukea sustatzea.
- Kontseiluan ordezkatuak ez dauden pertsona eta erakundeek sustatuko ekimenak ezagutu eta horren berri ematea.
- Barañaingo emakumeekin egiten diren jardueretan parte hartzea.
- Sustapen lana egitea, emakumeek parte har dezaten Barañainen gizarte-sustapen eta babesari begira egiten diren jardueretan
- Herrian aukera berdintasun planean jasotzen diren helburu eta jardueren jarraipena egitea.

2. Kontseiluko kideen eginkizunak:

Kontseiluburua:

- Kontseiluko ordezkari eta buru izatea.
- Kontseiluko bilkurarako data finkatu, deia egitea eta bertan buru izatea.
- Bertan eztabaidatuko den gai zerrenda ezartzea.
- Eztabaidak zuzendu eta moderatu, hitza eman edo ukatu.
- Bilkurak bertan behera utzi, horretarako arrazoiak daudenean.
- Kontseiluko kide titular izaera onestea.
- Kontseiluko kide izaera galtzea onestea.
- Kontseiluaren zabaltea onartzea, hala badagokio.
- Idazkaritza teknikoak luzatzen dituen ziurtagiriak ikus-onetsiarekin baimentzea.
- Deialdiak sinatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektoriala desegitea.
- Kontseiluaren erabakiak bete daitezten begiratzea.
- Kontseiluaren funtzionamendurako araudia bete dadin begiratzea.
- Udalari igorriko zaizkion proposamen edo txostenak sinatzea.

Idazkaritza teknikoak:

- Parte-hartzaile berrien partaidetza eskaerak jasotzea.
- Kontseiluan landu beharreko gaietan kontseiluko kideei aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzea.
- Gai zerrenda eta bilkuren akta idaztea.
- Aurreko aktaren irakurketa eta onespren proposamena.
- Hurrengo bilkuraren gai zerrendarako eztabaidarako iradokizunak jasotzea.
- Batzorde tematikoak osatzea bultzatzea.
- Batzordean garatu beharreko lanaren jarraipena egitea.

Kideak:

- Gai zerrenda errespetatzea.
- Hitz egiteko txanda errespetatzea.
- _Berdintasun planari buruzko gaiak jakinarazi, eztabaidatu, aztertu, kritikatu, aurkeztu eta proposatzea.
- Gai zerrendan azaltzen diren gaietaz eztabaidatzea.
- Kritika konstruktiboak egitea
- Eskakizun eta beharrak adieraztea.
- Kontseilua eta beren xedek beren jardura esparruei edo nazio kolektiboari jakinaraztea.
- Baraiaingo jendeak egiten ahal dituen proposamenak jaso eta kontseiluko gainontzeko kideei jakinaraztea.
- Beren jardura esparruei onartutako edo errefusatutako proposamen edo neurriak jakinaraztea.
- Neurri eta proiektuak proposatzea Udalaren organo eskudunari, horrek onets dezan
- Hurrengo gai zerrendan sartzeko gaiak proposatzea.

5.- artikulua. Funtzionamendua.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektoriala, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 2. tituluko II. kapituluan eta 2568/1986 Errege Dekretuko 130. eta 131. artikuluetan xedatutakoarekin bat arautuko da, bere funtzionamenduari dagokionez.

a) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektorialak bilkura arrunta egiten du hilabetean behin gutxienez, eta bilkura berezia kontseiluburuak dei egiten duenean edota kideen herenek hala eskatzen dutenean.

Ohiz kanpoko izaeraz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektorialak bilkura arruntean hartutako erabakiaren bidez, herritarrendako bilkura irekiak (batzarrak) deitu ahalko dira, horreterako bide egokiak erabili eta gai zerrenda ezarriko da.

b) Kontseiluko kideez gain, bilkuretara joan ahalko dira, hizpidea izanik baina botorik gabe, kontseiluburuak egoki deritzon beste pertsona batzuk, landuko diren gaien beren ezagutzaren arabera.

c) Kontseilua balio osoz eraturik geldituko da, hartara agertzen direnean, lehenbiziko deialdian, kideen erdiak gehi bat, edota bigarren deialdian kideen herenak.

d) Erabaki guztiak hartuko dira bilkuran dauden kideen gehiengo soilaren bidez. Emakumearen Kontseiluari atxikitako elkarte edo talde politiko bakoitzak boto bat izanen du, alde batera utzita talde horietako bakoitzetik zenbat kide joaten diren bilkurara.

e) Deialdia erabaki eta idatziz jakinaraziko zaizkie kontseilu-kide guztiei, bilkura baino 3 egun baliodun lehenago bederen, presako kasuetan izan ezik, eta deialdiarekin batera eguneko gaien zerrenda bidaliko da.

f) Bilkura bakoitzaren akta idatziko da, honako hauek bertan paratuta:

- Bilkurara joan diren pertsonak.
- Gai zerrenda.
- Bilkuraren tokia eta denbora.
- Jorratu diren gairik garrantzitsuenak, zein pertsonak hartu duten parte aipatuta.
- Bozketaren gaia eta emaitza.
- Erabakien edukiak.

g) Aktaren kopia bat, dagokion dokumentuekin batera Barañaingo Udalera igorriko da (dagokion zinegotzigoari, Emakumearen alorrari atxikita dagoen batzordeari), hartutako erabakien jarraipena ahalbideratzeko.

h) Kontseiluak bidezkotzat jotzen badu, lan-batzorde edo taldeak era daitezke, haren eskumenekoak diren gaiei buruz, edota bilkuretara etortzeko dei ditzake udaleko beste kide batzuk.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Baliogabetu egin dira Erregalamendu honi kontra egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta bereziki hurrengoa:

_Barañaingo Udalak, 1996ko uztailaren 20an egin osoko bilkuran, behin betiko onetsi zuen Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Barañaingo Kontseilu Sektorialaren antolaketa eta funtzionamenduaren gaineko erregelamendua (1997ko 28. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, martxoaren 5ean).

AZKEN XEDAPENA

Indarra hartzea

Testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra erregelamendu honek.

Iragarkiaren kodea: L0711985